

IZENDAPENAK

OHOREZKO EUSKALTZAINAK

Euskaltzaindiaren osoko bilkurak, Eibarren, 2002.eko azaroaren 29an egindako bileran honako hauek izendatu zituen ohorezko euskaltzain bezala:

- *Juan Garmendia Larrañaga*. Tolosan jaioa, 1926ko uztailaren 12an.
- *Jose Mari Larrarte Garmendia*. Bidanian jaioa, 1926ko urtarrilaren 4an.
- *Ander Manterola Aldekoa*. Zeanurin jaioa, 1934ko maiatzaren 23an.
- *Georges Rebuschi*. Parisen jaioa, 1949ko martxoaren 10ean.
- *Vahan Sarkisian*. Erevan-en (Armenian) jaioa, 1954ko martxoaren 12an.
- *Larry Trask*. New York-en sortua, 1944ko azaroaren 10ean.

Abenduaren 20an, Laudion egin zen Federiko Belaustegigoitiaren ome-nezko ekitaldian izan zen diploma-ematea. Lehenengo hirurei eskura eman zien diploma Euskaltzainburuak.